



Esp. zk.: SUBV_EVAL_INDIV/2023/2

Dirulaguntza-deialdia, banakako ebaluazio-araubidean mugitzeko desgaitasun larriak dituzten pertsonen egokitutako garraio alternatiboa eskaintzeko, taxi-bonuz baliatuta.

2023. urtea.

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusitako gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Zerbitzuak
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da banakako laguntzak arautzea, Iruñeko taxi-bonuz bidez ematekoak, desgaitasuna dela-eta hiri garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsonen garraio egokitu alternatiboa (taxia) eskaintzeko. Deialdi hau garraio kolektibo publikoan erabilitako ibilgailuen irisgarritasunaren garapenak baldintzatuko du beti.

2. Deialdiaren helburua:

Laguntza hauen helburua da mugikortasun arazoak dituzten pertsonen hiriko joan-etorrietan laguntzea, bizimodu independentea egiteko aukera izan dezaten eta, ondorioz, gainerako herritarren eskubide berberak izan ditzaten, baldintza berberetan.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

Dirulaguntza hau honela gauzatuko da: dirua emanen da, txartel elektronikoen bidez, onuradunek joan-etorriak taxi zerbitzu publikoaren bidez egiteko erabil dezaten 2023an, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, honako baldintza hauekin bat:

- Dirulaguntza kontzeptupean ematen diren kopuruek hilabeteko iraupena izanen dute, 2023. urtean zenbat hilabetetan jaso behar den eta horietan, uztailean eta abuztuan salbu, antolakuntza-arrazoiak direla eta bi hilabeteko iraupena izan baitezake.

- Taxi-bonuek izaera pertsonal eta besterenezina dute, eta diru-txartel elektronikoen bidez emanen dizkie entitate kolaboratzaileak deialdi honetako onuradunei.

- Taxia eskatzerakoan, onuradunak alde aurretik jakinarazi beharko du diru-txartela erabili behar duela.

- Onuradunak, taxilariak eskatuta, identifikazioa aurkeztu beharko du, NANaren edo nortasuna egiaztatzen duen beste edozein agiriren bitartez.



BANAKAKO EBALUAZIOA

- Taxi-bonua Iruñerriko taxi-zerbitzuko edozein taxi egokitu eta/edo irisgarri motatan erabiltzen ahalko da, betiere Iruñerriko Mankomunitatearen eskumenaren barnekoa bada. Udalerriaren barneko joan-etorrietarako zein Iruñerriko garraio publikoaren hiriarteko eremuaren barnekoetarako erabiltzen ahalko da.
- Onuradunek haien egoeran emandako aldaketen berri eman beharko dute, baldin eta programan sartzeko eskubideari eragiten badiote.
- Hilabete bakoitzari dagozkion taxi-bonuaren zenbatekoek zein hilabete naturaletan egon eta horren azken egunera arte iraunen dute, betiere 2023ko abenduaren 31ra bitarte.
- Desgaitasunak aitortzeko zentroak emandako ebazpenean eskatzaileak garraio kolektiboa erabiltzeko duen zailtasuna jaso beharko da.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

BAI EZ

Dirulaguntzak emanen dira onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskaerak aurkeztu ahala, eta, betiere, eskaerari erantzuteko aurrekontu-kontsignazioa egon bitartean. Nolanahi ere, kreditu egoki eta nahikoa egon beharko da dirulaguntzak emateko, eta, horrenbestez, ezin izanen da ezein laguntzarik ematea onetsi 2023. urteko aurrekontua indarrean sartu arte deialdi honi erantzuteko kreditu egoki eta nahikoaz.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 190.000 €

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa 2023an agortzen bada eta Gizarte Zerbitzuetako Alorrean urte horretarako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira gauzatu, zenbateko horiek deialdi honetan erabiltzen ahalko dira, baina horrek ez du berez ekarriko beste deialdi bat egitea. Gehikuntza horren onuradun izanen dira eskaera deialdi honekin bat eta dirulaguntzak eskatzeko epean egin duten eskatzaileak, baldin eta kreditua agortzean laguntzarik jaso gabe gelditu badira.

Halaber, laguntzaren onuradunek hura jasotzeko eskubidea izanen dute, taxi-bonuaren txartelaren bidez, soilik deialdi honetara zuzendutako gehieneko zenbateko osoa agortu arte.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 70/23181/480000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Onuradun bakoitzari emanen zaion gehieneko zenbatekoa hilabeterako ezarriko da, eta garraio kolektiboetara sartzeko zailtasuna neurtzeko baremoan jasotako kalifikazioaren arabera zehaztuko da. Ezin izanen du 103 € baino handiagokoa izan, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko 1971/1999 Errege Dekretuan, abenduaren 23koan, jasotako baremoko A, B eta C apartatuen kasuan, ezta hileko 62 €-koa baino handiagokoa ere –gutxienez 7 puntu lortuta– D, E, F, G eta H apartatuen kasuan.

Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretua indarrean sartu zenetik, ezarri zen ezin izanen dela 103 € baino handiagokoa izan mugikortasunaren apartatuan gutxienez % 50 eta gehienez % 100 duten pertsonentzat. Edo hilean 62 €-koa, ezarritako mugikortasun-baremoan gutxienez % 25 eta gehienez % 50 duten pertsonentzat.

Onuraduna egoitza-zentro batean bizi bada, zenbatekoek ezin izanen dute 86 € eta 52 € baino gehiago jo, hurrenez hurren.

Hala ere, % 25eko gehigarria emanen da (hilean 129 € edo 78 € bitarte, hurrenez hurren) egunero taxia erabiltzeko beharra egiaztatzen bada lantoki batera edo derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntza arautuko ikastetxe batera (Batxilergoa, LH edo Unibertsitatea) joateko, betiere baldin eta zentroak ez badu erabiltzaile mota horiendako garraio egokitua eskaintzen.

Hilean gehienez jaso daitekeen zenbatekoa % 10 murriztuko da, eta 93 € eta 56 € izanen da hurrenez



BANAKAKO EBALUAZIOA

hurren, baldin eta onuradunak desgaitasuna duten pertsonendako aparkatze-txartelaren titularrak badira. Murrizketa horrek ez die eraginen egoitza-zentroetan bizitzen, ikasten edo lanean ari direnei, klausula honetan ezarritakoarekin bat.

4. Urte anitzeko deialdia: BAI EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta:	0 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa (2023)	190.000 €	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezin debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

1.- Iruñean erroldatua izatea 2022ko urtarrilaren 1etik eta bertako udal-erroldan izena emanda jarraitzea laguntza jasotzen den bitartean.

2.- Desgaitasunen bat izatea, % 33ko graduan edo handiagoan, halako moduz non horrek biziki galaraziko baitio garraio kolektiboetan sartzeari, betiere hori Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak (ANAP) emandako Desgaitasunari buruzko Agiri Ofizialean egiaztatu bada. Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko 1971/1999 Errege Dekretuan, abenduaren 23koan, jasotako baremoa: A, B eta C apartatuak, edo gutxienez 7 puntu D, E, F, G, H apartatuetan, eta Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretua.

3.- Gidatzeko baimenik ez izatea, edo, inoiz izan bada ere, desgaitasunaren ondorioz gidatzeko moduko baldintza fisikorik ez izatea (inguruabar hori osasun-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da).

4.- Mugitzeko desgaitasuna duten pertsonendako egokitutako ibilgailu propioak ez izatea, 18 urtetik gorako eskatzaileen kasuetan.

5.- Familia-unitateak ez ditzala gainditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken ekitaldi aitortuan urteko gehieneko diru-sarrerera hauek, taula honekin bat:

Kide kopurua		Diru-sarrereren muga
1	3,00 X OAEAP	23.725,28 €
2	3,50 X OAEAP	27.680,10 €
3	4,00 X OAEAP	31.634,4 €
4	4,50 X OAEAP	35.588,7 €
5	5,00 X OAEAP	23.725,28 €

2021eko OAEAP (Ondore Anitzeko Errenta Adierazle Publikoa): 7.908,6 €/urteko

6.- Familia-unitateak ez izatea 150.000 eurotik gorako ondarea, ohiko etxebizitzaren balioa kontuan hartu gabe. Halaber, dirulaguntza ukatuko da, edo, hala dagokionean, bertan behera utziko da, prozedura egokia egin ondoren, baldin eta antzematen bada laguntzaren eskatzaile edo onuradunaren edo familia-



unitateko kideren baten pobretze faltsua izan dela.

Deialdi honetako ondorioetarako, eskatzailearen familia-unitatearen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko, kideen errenta eta ondarea hartuko dira kontuan, honako irizpide hauekin bat:

1. Errentatzat edo urteko diru-sarreratzat hartuko dira familia-unitatearen diru-sarrera guztiak, honako hauek eragindakoak: - Lan-etekinak, gizarte-aurreikuspeneko pentsioak eta prestazioak barne hartuta, haien erregimena edozein izan eta PFEZaren aitortzearen errenta salbuetsi gisa agertzen badira ere. Besteen konturako lan-etekinaren diru-sarrera gordinetatik kenduko dira hala Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioak nola eskubide pasiboengatik, derrigorrezko mutualitateengatik edo antzekoengatik ordaindutako zenbatekoak.

- Kapital higigarrien eta higiezinen errendimenduak.
- Enpresa edo lanbide jardueren errendimendu garbiak.
- Ondarearen gehikuntzak eta gutxitzeak. (PFEZaren aitortzearen, 507+ 524+ 529 laukiak).

Diru-sarrerak kalkulatzeko ez dira aintzat hartuko xede jakineko dirulaguntzak (laguntza ekonomikoak mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien senideei sostengua emateko; mendekotasuna duten pertsonendako laguntzaile pertsonala kontratatzeko dirulaguntza; laguntza ekonomikoa mendekotasuna duten pertsonak haien kargura dituzten senideek zaintzaile profesionalak edo mendekoak zaintzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak kontratatzeko...).

Familia-unitateko kideren bat egoitza-zentro batean bizi bada modu iraunkorrean, ez dira aintzat hartuko pertsona horri dagozkion diru-sarrerak, edo, bestela, familiaren diru-sarrerari kenduko zaizkie.

Familia-unitateak laguntza pertsonala emateko kontratatutako pertsona bat edukiz gero, gastu hori deskontatzen ahalko da, betiere gastua modu frogagarrian egiaztatzen bada (kontratua, Gizarte Segurantzaren alta eta nominak edo ordainketak aurkeztu beharko dira).

Eskatzailea edo familia-unitateko kideren bat ohiko etxebizitzarako alokairu-kontratu edo hipoteka baten titularra bada, hileko kostuaren % 70 deskontatuko da, gehienez ere 400 euro hilean, betiere ordaindu izanaren frogagiria aurkeztuta.

2. Ondaretzat hartzen da familia-unitatearen kapital higigarri eta higiezin guztia. Horren balioa balioztatzeke, Ondarearen gaineko Zergan ezarritako arauak jarraituko dira.

- Kapital higigarritzat hartzen dira honako hauek: kontu korronteko gordailuak eta eperakoak, inbertsio-eta pentsio-funtsak, balore higigarriak, bizitza-aseguratuak erreskate kasuan eta aldi baterako errentak zein biziartekoak, bai eta arte-objektuak, antzinako gauzak, bitxiak eta balio handiko bestelako objektuak (Ondarearen gaineko Zergan aitortutako balioa kontuan hartuta).
- Kapital higieztatzat hartzen dira hiri- zein landa-ondasunak (ez da kontuan hartuko ohiko etxebizitza).

3. Familia-unitatetzat hartzen da:

a) Ezkontideek, seme-alaba adingabeek –gurasoen baimenarekin independente bizi direnak salbu– eta adin nagusikoak izanik beren gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza-neurriak dituzten eta desgaitasuna duten seme-alabek osatutakoa.

b) Berariazko legediaren araberrako bikote egonkorrek, eta seme-alaba adingabeek –gurasoen baimenarekin independente bizi direnak salbu–, eta adin nagusikoak izanik beren gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza-neurriak dituzten eta desgaitasuna duten seme-alabek osatutakoa.

c) Oinarri hauetako baldintzak betetzen dituzten familia gurasobakarrak.

d) Aukeran, familia-unitateko kide gisa sartzen ahalko dira 18 eta 25 urte bitarte izaki Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten eta gurasoengandik independente bizi ez diren seme-alabak.

SALBUESPEN GISA HAR DAITEZKEEN EGOERA BEREZIAK

- Norberarena ez den familian hartutakoak: Familia batek desgaitasuna duen adingabe bat etxean hartua izanik (abandonu edo babesgabetasun dekretuak zehaztua) adingabe horrek taxi-bonuaren banakako



laguntza jasotzeko baldintzak betetzen baditu, familiak diru-sarrerren maila (errenta) gainditzea egoera berezizat hartuko da.

- Familia-unitate berean bi pertsonak desgaitasun larria dutenean: Familia-unitate bereko bi kidek banakako taxi-bonuko laguntza jasotzeko betebeharrak betetzen badituzte, baina diru-sarrerren muga gehienez ere % 40 arte gainditzen badute, egoera berezizat hartuko da.

- Bizi-itzaropena modu frogagarrian nabarmen murrizten duten gaixotasun edo patologia biziki larrien kasuan (desgaitasun bat dutenei aparkatzeko txartelak emateko eta horiek erabiltzeko oinarrizko baldintzak arautzen dituen 1056/2014 Errege Dekretuaren xedapen gehigarriarekin bat): Eskatzailea egoera horretan egon eta desgaitasun-ziurtagiria izapide-fasean badago, horren ordez erreferentziarako medikuak emandako osasun-txostena erabiltzen ahalko da, gehienez ere 6 hilabetetarako, behin-behineko aparkatze-txartela lortze aldera.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela eta, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskaerarekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

- **Deialdi honetan araututako ordainketa elektronikoko sistema derrigorrezkoa da laguntzen onuradunendako.**

- **Taxi-bonuaren txartelaren erabilera pertsonala da eta ezin zaie hirugarrenei laga.**

- **Taxia eskatzerakoan, onuradunak aldeztu aurretik jakinarazi beharko du diru-txartela erabiliko duela.**

- **Onuradunak, taxilariak eskatuta, identifikazioa aurkeztu beharko du, NANaren edo nortasuna egiaztatzen duen beste edozein agiriren bitartez.**

- **Onuradunak haren egoeran emandako edozein aldaketaren berri eman beharko du, baldin eta dirulaguntza eskuratzeko eskubideari eragiten badio.**

- **Iruñeko Udalarari jakinaraziko zaio erabiltzailearen partetik garraio-zerbitzuaren erabileran antzemandako edozein irregulartasun.**

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko dizkiote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.

- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".



- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: BAI EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

BAI EZ

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak non aurkeztu:

Dirulaguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkezten ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia, Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunean hasiko da, eta 2023ko urriaren 31n amaituko.

Administrazio-eraginkortasuna dela-eta, 2022. urtean baiezko erantzuna jaso eta dirulaguntza eskuratu duten eskaerak baliozkoak izanen dira 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ari dagokion espedientea ebazten den egunera arte, betiere eskaera berria 15 egun naturaleko epean aurkezten bada oinarri hauek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina kontatuta. Aipatu epean ez baina geroago eginez gero, eskatzaile berriztat hartuko dira ondorio guztietarako.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak interesdunak edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinaturik aurkeztutako eskabide bidez egin behar dira, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskaerarekin batera, deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikuluekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko,



bertan adieraziz noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokie, norik eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, ez badira bete bost urte baino gehiago agiriei dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.

- NAN edo AIZaren fotokopia aurkeztu beharko dute.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, honako agiri hauek:

Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizios egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarreak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). BAI EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Dirulaguntza honen xedea eta izaera kontuan harturik, ez zaie eskatuko eskatzaileei f) letra honetan adierazitako agiriak aurkezteko.

g) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Datu Fiskalen Orriaren azken aitortpena. Aitortpena egiteko betebeharrak ez dutenen kasuan, azken ekitaldiko Aitortpen Negatiboa eta Datu Fiskalen Orria, Ogasunak emana, eta hala badagokie, familia-unitatearen diru-sarreraren egiaztagirak.

h) Hala badagokio, enpresaren edo derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengo irakaskuntza arautuko zentroaren egiaztagiria, non jasoko baita langile edo irakasle interesdunaren egoera, bai eta garraio



egokiturik ez dagoela ere.

i) Desgaitasun-maila aitortzeko Agiria, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak emana, non jasoko baita garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasunen baremoa.

j) Halakorik behar izatera, D.1 zenbakian adierazitako salbuespenezko egoerak justifikatzeko agiriak.

Beste edozein agiri osagarri eskatzen ahalko da, betiere dirulaguntza honen onuradun izateko betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera.

Aurrekoa gorabehera, deialdi honen G.2 zenbakian ezarritakoaren arabera (onuradun zaharrak) baliozkotzat jotzen diren eskaeren kasuan, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte bakarrik:

a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Datu Fiskalen Orriaren azken aitortpena. Aitortpena egiteko betebeharrak ez dutenen kasuan, azken ekitaldiko Aitorpen Negatiboa eta Datu Fiskalen Orria, Ogasunak emana, eta hala badagokie, familia-unitatearen diru-sarreraren egiaztagiria.

b) Hala badagokio, enpresaren edo derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengo irakaskuntza arautuko zentroaren egiaztagiria non jasoko baita interesdunaren langile- edo ikasle-egoera, bai eta garraio egokiturik ez dagoela ere.

Deialdi honetan ezarritakoaren arabera eska daitezkeen betekizunak edota datuak egiaztatzen ahalko dira, dagokion erakundeari galdetuz.

Udalak ofizioz egiaztatuko ditu:

- eskatzailearen errolda.

- ibilgailu egokitu baten jabe den, zeharka, zirkulazio-zergan salbuespena duen egiaztatuz.

Deialdi honen ondorioetarako, II. eranskina ez da aurkeztu beharko; izan ere, zenbaki honen b) letran eskatzen den informazioa deialdiaren I. eranskinaren eredian dago jasota.

Eskabideak berekin ekarriko du Iruñeko Udalarai baimena ematea egoki jotzen diren jarduketak egin ditzan, egiaztatzeko hala eskatzaileek emandako informazioa nola eskatutako betekizunak betetzen dituztela eta laguntza jasotzearen ondorioz onuradunak dituen betebeharrak betetzen direla.

Agiriekin jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENAREN EBALUAZIOA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea kontuan harturik, eta ebatzeko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Deialdiaren D.1) apartatuan jasotako egoera bereziak, edo salbuespen gisa aurkezten ahalko diren beste batzuk, banan-banan aztertuko ditu Alorreko lantalde tekniko batek. Aldez aurretik salbuespena justifikatzeko gizarte-txostena aurkeztu beharko da, kasu bakoitzari dagokion auzo-unitateko edo osasun-zentroko erreferentziatzeko gizarte-langileak egindakoa.

Honako hauek osatuko dute aipatutako lantalde teknikoak:

- Gizarte Zerbitzuetako Alorreko Autonomia Programako arduraduna.

- Gizarte Zerbitzuetako Alorreko teknikari bat.

Lantalde horrek proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko.



2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Ebatzi eta jakinarazteko epea lau hilabetekoa izanen da gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpeni buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahalko dira:

- Taxi-zerbitzu publikoaren ibilaldia, Iruñerriko Zerbitzu Mankomunitateak haren araudian 2023rako ezarritako tarifekin bat.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xedea izanen: aipatutako gastuez aparte beste edozein gastu.

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: *Diruz lagunduko da taxi zerbitzu publikoaren erabilera 2023an, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte.*

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko



Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoak:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xede den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua:

Dirulaguntza honen ordainketa aurrez kargatutako txartel elektronikoen baten bidez egiten da.

Iruñeko Udalak entitate kolaboratzailea hautatu du, zeinak txartel elektronikoa kudeatzeko beharrezko lanak egiten baititu eta dirulaguntza onuradunei ordainduko baitie, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezartzen dituen eskakizunekin bat. Entitate kolaboratzaile hau, COCEMFE, arduratuko da zenbatekoen ordainketa egiteaz txartel elektronikoen bidez eta onuradun bakoitzaren egoera erregularizatzeaz: taxi-bonu txarteletan kargatuko ditu, hilero, hilabete bati dagozkion zenbatekoak, eta kudeaketa-sisteman sartuko du deialdi honen babespean emanen diren dirulaguntzetara egokitutako ordainketa-bitarteko bat; bitarteko horrek arautuko ditu hala taxi-bonuen erabilera nola banaketa eta deialdi honen arabera egindako benetako gastuaren ordainketa.



Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketaren bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 33.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu dirulaguntzen onuradunekin kobratzeke dituen zorrak, emandako dirulaguntzaren edo horren parte baten bidez haiek berdinduta.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukirik: BAI EZ

Justifikazio-kontu erraztua:

Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistema bat:

Entitate kolaboratzaileak aurkeztuko du justifikazioa, eta onuradunek hari horretarako eskatzen zaizkien agiriak aurkeztuko dizkiote, honako arau hauekin bat:

- Hilabete bakoitzeko lehen astean, taxi-bonu txarteletan egindako karga eta deskargen guztizkoaren berri eman beharko da.

- Hiruhileko natural bakoitza amaitu eta hamabost egun baliodunetara, aurreko hiruhilekoaren azken egunera bitarte izandako diru-sarrera eta gastuak justifikatu beharko dira.

- 2024ko urtarrilaren 31n, egindako jardueraren justifikazio-memoria aurkeztu beharko da, bai eta entitate laguntzailea 2023an prestazioa ematen hasi zenetik 2023ko abenduaren



31ra bitarte egindako jardueraren gastuen eta diru-sarreraren justifikazioa ere, barne hartuta izan daitekeen superabita.

Bi une horietan jarraian zehazten diren agiriek osatuko dute justifikazioa: a) Diruz lagundutako jardueraren ebaluazio-memoria.

b) Deklaratzaileak izenpetutako zerrenda izenduna, banako txarteletara egindako transferentziena.

c) Deklaratzaileak izenpetutako zerrenda izenduna, horretarako berariaz gaitutako kontu korrante nagusira itzulitako banakako txartelen zenbatekoena.

d) Taxi-zerbitzuaren zerrenda izenpetua, taxi zerbitzuaren karguena.

e) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren balantze izenpetua, horretarako berariaz gaitutako kontu-korrontearen saldoa.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

1.- Hiruhileko natural bakoitza amaitu eta hamabost egun baliodunetara: aurreko hiruhilekoaren azken egunera bitarte izandako diru-sarrera eta gastuak.

2.- 2024ko urtarrilaren 31rako: Egindako jardueraren justifikazio-memoria aurkeztu behar da, bai eta entitate laguntzailea prestazioa ematen hasi zenetik 2023ko abenduaren 31ra bitarte egindako jardueraren gastuen eta diru-sarreraren justifikazioa ere, izan daitekeen superabita barne hartuta.

3.- Hilabete bakoitzeko lehen astean, gainera, taxi-bonu txarteletan egindako karga eta deskargen gutzitza berri eman behar da.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZIOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ

- Taxi-bonu txartela behar ez den bezala edo modu iruzurtian erabiltzeak txartela erabiltzeko eskubidea galtzea ekartzen ahalko du, aldez aurretik dagokion administrazio prozeduraren instrukzioa eginda.

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:



1. Nolanahi ere, kreditu egoki eta nahikoa egon beharko da dirulaguntzak emateko, eta, horrenbestez, ezin izanen da ezein laguntzarik ematea onetsi 2023. urteko aurrekontua (luzatua zein behin betikoa izan) indarrean sartu arte deialdi honi erantzuteko kreditu egoki eta nahikoaz.

2. Programa honen babespean emandako dirulaguntzen ordainketa egiteko, entitate laguntzailea aukeratu da, eta horrek, organo emailearen izenean eta haren kontura, beharrezko diren lanak egingen ditu dirulaguntzak onuradunei emateko eta banatzeko. Entitate laguntzailearen aukeraketa Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 13.5 artikuluan ezarritakoarekin bat egingen da. Deialdi honetara bideraturiko kreditua aukeratutako entitate laguntzaileak kudeatu eta banatuko du. Onuradunen artean banatzeko jasotako funtsak ez dira, ezein kasutan, entitate laguntzailearen ondarearen partetzat hartuko.

Entitate laguntzaileak Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. eta 12. artikuluetan jasotako betebeharrak onartu beharko ditu.

Entitate laguntzaileak funtsak itzuli beharko ditu baldin eta dirulaguntzak emateko betebeharrak betetzen ez baditu, eta, edozein kasutan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legearen 37. artikuluan eta Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan jasotako kasuetan.

Iruñeko Udalak urteko lehenengo bihilekoan emanen dio dirulaguntzen deialdi honetara zuzendutako funtsen % 80 dirulaguntzak kudeatzeko ardura duen entitate laguntzaileari. Behin deialdiaren lehenengo hiruhilekoaren justifikazioa baloratuta, entitate laguntzaileari transferituko zaio gainerako % 20ari dagokion zenbatekoa, ezertan galarazi gabe oinarri hauen Ñ apartatuan ezarritako justifikazioak.

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.